

Getxo

ARANGUENA, Javi
Udal ordezkaria

Getxoko Udalak 2004an argitaratu zituen *Leku-izenak* toponimia liburu eta mapa.

Toponimia zabaltzen jarraitzeko, Getxoko ezaugarri soziolinguistikoak kontuan izanda, 2005ean *Leku-izenak toponimia CDa* argitaratu zen.

CD honen helburu nagusiak bi ziren: alde batetik lehen hezkuntzan ari diren umeen artean toponimia zabaltzea eta bestetik liburu eta maparen edizioa berriztatzea formatu digitalean.

- Lehen hezkuntzako ume eta gazteei zuzenduta dago CDaren zatietako bat. Zati honetan, modu ludiko batean adin bakoitzari egokitutako jokoek bidez ezagutaraztera eman nahi da herriko toponimia. Lehenengo jokoak zailtasun maila baxuenekoak dira eta aurrera egin ahala zailtasun maila hori gora doa: marraztea, diferentziak aurkitzea, puzzlea osatzea, galdera anitzei erantzutea, «alxorra» topatzea... Jokoak zailtasunean gora egiten duen neurrian ikasleak toponimiaren ezagutza aktiboagoa izaten du. Joko guztiak gainditzen dituenarentzat sari txiki bat dago, diploma.
- Bigarren zatia liburuaren eta maparen edizio berri bat da eta berauetan lan egiten laguntzeko bilatzaile ezberdinak topatu ahal ditugu, aspaldiko argazkien bilduma eta herrian zehar egin ahal diren ibilaldien proposamenarekin. CDan 8 ibilbide proposatzen dira, garraio publikoa duten guneeetan hasi eta amaitzen dira ibilbideak eta oinez ordu bat ala bi egiteko pentsatuta daude. Gainera, CDek, ibilbideetan zehar topatuko ditugun inguruen ikuspegi panoramikoak eskaintzen dizkigute.